AMETSETAKO ERREALITATEAREKIN AMETSETAN

EDURNE ZABALETA SASTURAIN
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1.saria
Leitzako Amazabal Institutua

"Gaueko hamarretan Torontora irten behar zuen hegazkina bertan behera geratu da"

Horixe izan zen itxaroten ari ginela entzun genuena, ederra panorama! Horrenbeste denbora itxaron eta gero, alferrik.

Autoa hartu eta berriro etxera itzuli ginen.

Nekatuta geundenez, txokolate beroa hartu eta lotara joan ginen...

<<Tren geltoki batean nengoen, ez dakit nola iritsi nintzen bertara, ezta zergatik ere. Inguruan ez zegoen inor. Minutuek aurrera egin beharrean mendien artetik iristen zen haize hotzak izoztu zituela zirudien, honek mugitzen zituen hosto zimelduengatik izan ez balitz marrazki batean marrazturiko pertsonaia horietakoren bat nintzela pentsatuko nuen, arkatzez marrazturiko mugen menpe, geldi. Itxaroten aspertuta trenbidearen errailetara hurbildu nintzen. Makurtu eta belarria burdin hotzetara gerturatu nuen.

Urrunean trenen bat gerturatzen ari zela iruditu zitzaidan, baina ez nengoen ziur, badaezpada ere baztertu egin nintzen eta belardian apatx jarririk itxaron. Ez nenbilen oso oker, urrutian ke zutabe beltza gerturatzen ari zela ikusi nuen, baina norantz zihoan? Ondoraino iristean gelditu egin zen eta ate zaharkituak ireki egin ziren. Zalantza izan nuen, baina azkenean bertara sartu nintzen. Harrigarria zen! Ez zegoen inor, dena hutsik zegoen, gidariaren alderantz joaten saiatu nintzen, baina burdinazko ate batek bidea oztopatzen zuen.Ikatza erretzen zen lekura gerturatu nintzen, han ere ez zegoen ikazkinik eta trenak erraiek osaturiko zuzen amaiezinari jarraitzen ziola zirudien. Trena belardi amaiezinen artetik tunel batera gerturatzen ari zen, bertan nintzen, dena beltz ikusten nuen.

Trena abiadura moteltzen zihoala nabaritu nuen, gelditzeraino. Bertako iluntasunean galdurik sentitzen nintzen, nonbaitetik aire hotza zetorrela sumatzen nuen eta bertara urreratu nintzen. Ate zaharkituren bat irekita zegoen, ez nekien zer egin. Aurrera jo edo atzerantz itzuli, edozein aldetara jota ere izua zen nire sentimendu nagusia. Pixkanaka jaitsi nintzen, fresko egiten zuen. Bertako horma topatu nahian hasi nintzen, baina ezinezkoa egiten zitzaidan, jada trenetik urrun nengoela iruditzen zitzaidan. Nondik azaldu nintzen bertako iluntasunean? Erantzunik aurkitu gabe aurrerantz jarraitu nuen. Hormei jarraituz muga batera iritsi nintzen, jadanik amaitua zen, baina denak beltz jarraitzen zuen.

Geratu egin nintzen, baina segundu, minutu edo ordu batzuen ondoren, nork daki norbaiten bultzada sentitu nuen. Ez zidan bertan geratzen uzten,aurrera nindoan. Nire barruan izua zen nagusi, bitarte horretan lurzorua aldatu zela eta putzu batzuen gainetik nindoala iruditzen zitzaidan. Hauek zipriztinduriko tantengatik bertakoa likido hotzen bat zela banekien, une batez bultzaden aurka egin nuen eta makurturik putzu horietako batean hatza busti nuen. Hau aurpegirantz hurreratu orduko bultzadek gero eta indar gehiagoz aurreraka eraman ninduten likido hori ezkutatu nahi izango balute bezala. Baina niri berdin zitzaidan, ez nekien nora nindoan, baina nolabait ere jakin nahi nuen nondik nenbilen. Hatza sudur ondora gerturatu bezain laster erreakzio automatikoa izan balitz bezala oihu ozen bat bota nuen. Ez zen posible, odolaren usaina zeukan. Nire gorputzean jirabiraka zebilen odola, bertan izoztu zitzaidala zirudien, momentu hartan mila pentsamendu eta galdera etorri zitzaizkidan burura. Noren odola ote zen? Zergatik? zertarako? Baina hitz nagusia sufrimendua izan zen. Sufrimenduz beteriko putzu horietatik beste lurzoru batera igaro nintzela iruditzen zitzaidan, bai, halaxe zen. Jadanik putzuak desagertzen hasiak ziren eta iluntasunaren erdian usain berezi bat zen nagusi, usain honek itxaropena ekarri zidan.Oker ez banengoen, laranjen usaina zen. Orain,bat batean, zergatik fruta laranja honen usaina? Osotara galdurik sentitzen nintzen: norabiderik gabeko belardiak, iluntasunaren iluntasunean galduriko tunela, sufrimendu gorria, laranjak... zer zen hura?

Aurrera eta aurrera jada lehen pizturiko itxaropena ere galtzen hasia zen. Hankekin ez nuen indarrik egiten, bultzadak berak gidatzen baininduen. Aspertzen hasia nintzenez, begiak itxi nituen eta orduantxe ikustea gustatuko zitzaidan eguzki distiratsuan pentsatzen hasi nintzen. Hau ikusi gabe, biziak ez zuela zentzurik ohartu nintzen. Nire burua mendi gailur batean irudikatu nuen, txorien askatasunezko kantuez gozatzen belardi berdean etzanda, lasai; eguzki horituak argia ematen zidala... Irudimen handiegia, kolore politegiak bat batean begiak ireki eta berriro ere errealitatean murgiltzeko.

Hura guztia zentzurik gabea zen, edota agian ez nion zentzurik harrapatu nahi.

Aurrera nindoan, dena oso arraroa zen, baina berriro lur zorua aldatu zela ohartzean, beldurtzen hasi nintzen. Berriro ere putzuekin egin nuen topo, hauek zipriztindu besterik ez ninduten egiten. Beste behin makurtu eta eskuekin bertako likidoa hartu nuen, honek ez zuen odol usaina,lasaitu egin nintzen. Dastatzen ausartu nintzen, ez nenbilen gaizki, itsaso urdin amaiezinetako uraren zaporea zeukan. Orduantxe putzu mugaezin horietako batean egotea amestu nuen, bertako askatasun barea eta ni, biok bakarrik. Lehenengo aldiz gustura sentitzen nintzen iluntasun hartan, bulkadek itsasoko haizeak bezala ninderamaten, atzera begiratzen utzi gabe ordu-artekoa ahazteko eskatuko balidate bezala.

Zipriztinek egiten zuten soinu lasaigarria, besterik ez zen entzuten bertan. Hala ere, lehen amestutako urdinari beste kolore bat gehituko nioke, morea. Itsasertzeko usaiaren gainetik masusta moreek izaten duten usaina ere hauteman bainezakeen. Beste behin galdurik, itsaso urdin amaiezina, sastraken artean ezkutatzen diren fruta moreen usaina...

Aurrera eta aurrera joan eta azkenik argi bat ikusten nuen,oso aurrean. Bultzada gero eta gogorragoa zen eta nik nire kabuz ere korri egiten nuen, ahalik eta lasterren. Ez nekien zerekin aurkituko nintzen, baina bertara azaldu nahi nuen. Gerturatu ahala gizaki baten itxura zeukala ohartu nintzen. Soineko zuriz jantzia zegoen, neskatila gazte eta lirain bat zen. Bera ere niregana gerturatzen ari zen, bere gorputza besterik ez nuen ikusten, bisaia ezkutaturik zeukan eta inguru guztiak ilun jarraitzen zuen. Ondo ondoan geundela besarkada bat eman zidan eta bere arnasa gertu gertuan sentitzen nuen, guztia oso arraroa zen. Belarri goxo-goxo zerbait xuxurlatzen hasi zitzaidan “koloretako ametsak esna nagoenean eta ezin loak hartu gaua iristen denean...” baina hitz horien artean besarkada izoztu egin zen, jada ez zegoen besarkatzekorik neskatilaren liraintasuna iluntasunean galdu zen, baina ahotsak berbatan jarraitzen zuen “begietara begira hauxe nahi dizut esan...” Nork eta zer nahi ote zidan esan?>>

Esnatu egin nintzen, mugikorreko iratzargailua zen.Nire ohean nengoen, dena amets bat izan zen. Ez nintzen oso ongi oroitzen ordu arte bizi izandako ametsaz, baina bai bertan azaltzen ziren kolore batzuez. Oker ez banenbilen hasieran dena beltza zen, geroxeago sufrimenduaren kolore gorri bizkorra islatu zen nire begietan, gero laranja usaina, ondoren eguzki horia eta noizbait igotzea gustatuko litzaidakeen mendi gailur berdexka, itsaso urdina, masusta moreak... ortzadarraren koloreak ziren!

Abuztuaren 3a igande goiza zen. Gauzak ongi joan izan baziren itsasoaren bestaldean egongo nintzen, baina ez zen posible izan. Hala ere eguna ederra esna zen, baina gaua heldu orduko dena trakestu zen.

Torontora iritsi eta goizean goizetik aprobetxatzea neukan pentsatuta, horregatik iratzargailuaren sinfonia. Nahiz eta Euskal Herrian egon,sinfoniaren alaitasunak animatuta gosaldu, zapatilak lotu,txakurra uhaletik lotu eta han abiatu nintzen.

Eguzkiak ederki jotzen zuen eta erreketatik behera menditik ihes egin nahian bezala zihoazen hostoen isladak nabarmenak ziren. Askotan bizigabea izatea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen, sufrimendu gabe, behin eta berriz harri berean erori gabe, lasai, inongo arazorik gabe.

Tipi-tapa, tipi-tapa zubi guztien gainetik zuhaitz guztien azpitik mendi gailurreraino iritsi ginen. Bertan udazkena heltzean hegan eginez ibiltzen diren hosto erorkorrak imitatu nahian hasi nintzen. Goiko haize leunak hegan egiteko laguntza eskainiko balidate bezala bortitzago jotzen hasi zen, gora eta gora zeru muga zeharkatzen lagundu nahi izango balidate bezala, baina bortizkeriak lurrera tupust erortzeko besterik ez zidan balio izan.

Asperturik nire lagun leiala alboan harturik beheraka abiatu nintzen. Bidean mila kolore,gaueko iluntasunetik ihes egiteko biderik gabe, tinko.

Etxera iritsi,zakurrari jaten eman,nire afaria prestatu, afaldu, ontziak eta hortzak garbitu, arrosa koloreko pijama jantzi eta ohea urratu nuen. Mugikorra ondoan neukala udan hain ohikoak diren gaueko mezuak bidaltzen hasi nintzen.

“Gabon! eguna ongi pasa al duzu? Ni...ez nago Toronton, hegaldia bertan behera geratu baitzen... Etxera itzuli eta amets arraro bat izan dut... tren batean sartu naiz, dena ilun zegoen, bat-batean kolore gorria eta beste kolore asko imajinatu ditut eta azkenerako gorputz batek besarkatu egin nau eta Pirritx eta Porrotxen abestia kantatzen hasi zait, bera desagertzeraino. Iratzargailua zen... maite zaitut!”

Baina mezu honen erantzunik ez zitzaidan sekula iritsi, ezta besterik ere. Honen ordez bestelako mila eta bat mezu iritsi zitzaizkidan.

“Sentitzen dut, benetan. Bazenekien momentu hau noizbait iritsiko zela, besteok ere bagenekien noizbait Ilargik mundu honetan bakarrik utziko gintuela. Baina gogoratu, jada ez du sufrituko, orain hobeto egonen da. Zuri animo,besterik ez, besarkada handi, handi bat... maite zaitut”

“Horrelakoa da bizia, egunen batean izar bihurtzen gara, gaurkoan Ilargik egin duen bezala, animo... maite zaitut”

“Nik ere ez nuen sinistu nahi,azkenean sinestaraztea besterik ez da geratzen. Hasieran haize bolada batek gogor astindu zuen, baina berak, bizitzaren zuhaitzari tinko eutsi zion eta gure artean jarraitu zuen. Azkenerako ahultzen joan da, gaurdaino, zuhaitzetik askatu den arte.”

Berriro ere loak hartu eta amesten ari ote nintzen? Ala bizi baten amaiera iritsi ote zen... Ez nengoen ziur, baina masailetan atximur egin ondoren, errealitate gordinen aurkitzen nintzela ohartu nintzen. Lagun bat galdu nuen.

Negarrari ezin eutsiz itsaso urdineko urek daukaten zapore gazia dastatu nuen, baina oraingo honetan mendiko elurretan sortutako tantak izan beharren begietan sorturikoak ziren. Eta itsaso urdinaren zabaltasunean amaitu beharrean, nire ezpainetatik zapore gazi gozoa utziz desagertzen ziren; gazia; lagun bat galdu genuen. Gozoa; badaki maite dudala,ez du gehiago sufrituko.

Astiro-astiro loak hartu nau.Konturatzerako ametsetan hasi naiz.Dena ilun zegoen,ikusezina zen baina senti zitekeen.Sufrimenduz inguraturik nengoen,zuriz jantzirik zegoen neskatxa batek besarkatzen ninduen,oraingo honetan aurpegia ikusi nion,Ilargi zen.Aurreko egunean izandako ametsa etorkizuna islatzen saiatu zen baina oraingo honetan, “begietara begira hauxe nahi dizut esan...” esaldiaren amaiera mugikorreko mezu baten bidez iritsi zitzaidan.

Badakizu,maite zaitudala,
benetan maite zaitudala,
orain ongi nago
badakizu,
zure irria izarren artean islatzean elkarrekin igarotako une goxoez oroitzean une bakoitzean
zeru mugaezina gu bion artean ez da erreza izanen, zuen artean ez egotea.

Orain arteko honetan zein da errealitatea? Zein ametsa? Nork ziurta dezake orain bizitzen ari garena ez dela ortzadarraren koloreek alaituriko ametsa? Amets honetatik esnatzean, zuekin elkartzean...